

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure enpresaren balio proposamena kualitatiboa eta kuantitatiboa da. Alde batetik, **kualitatiboa** da, mugikorreko app erabilterraza delako eta diseinu erakargarria delako.

Bestalde, **kuantitatiboa** da erabiltzaileentzat guztiz doakoa delako, beste aplikazio ugari ez bazala. Doakoa da, gure **printzipioak** sustatu nahi ditugulako eta gure enpresaren helburu nagusia gizarte-erantzunkizuneko delako; hau da, osasun mentalaren arazoak gutxitzea nahi dugu; **doakoa** ez balitz, ezingo luke gende guztiak erabili eta gure helburua ahalik eta gende gehienara iristea da.




Aplikazioarekin gazteen osasun mentala hobetu nahi da eta, horrez gain, entretenimendurako aplikazio bat eman nahi dugu. LetMeFeel app-ak hainbat behar asetu edota arazo konpontzen ditu:

- **Gazteak beren sentimenduen inguruan hausnartzen laguntzea.**
- **Osasun mentala hobetzea.**
- **Entrenimendua.**

Gazteek beren sentimenduak adierazteko duten **ezintasuna** eta beldurra gainditzen laguntzea da LetMeFeelen helburu nagusia, eta hori da guk gizarteari gehitu diezaioketuna, gazteak beren sentimenduen inguruan hausnartzen laguntzea.

Horrekin batera, gazteen **osasun mentala hobetu** nahiko genuke.

Azken urteotan, gazteen osasun mentalak okerrera egin du, azpiko grafikoan ikus daiteken bezala, eta horren eragileetako bat gazteek dituzten arazoak norberaren barruan gordetzea eta ez adieraztea da. Izan ere, horrek eragin txarrak izaten ditu pertsona baten osasun mentalean. Horrez gain, batzuetan zaila da gure lagunei geure egoera eta **arazoak kontatzea**, eta modu honetara, **erraza egingo** da. Gainera, lagunaren abestiak ikusita beraiek nola sentitzen diren jakiteko aukera egongo denez, **adiskideei lagunduko** diezu eurek zuri lagun ahal zaitzaketen moduan.



Horrez gain, bi astean behin zure egoera antzekoan dauden **pertsona berriak ezagutzea** ahalbidetzen dizu aplikazio honek, eta batzuetan lagungarria da zure egoeran dagoen eta epaituko ez zaituen batekin hitz egitea.

Bestalde, **entretenigarria** den aplikazio bat ere bada. Izan ere, musika eta artista berriak ezagutuko dituzu, zure lagunen abestiak begiratu ditzakezu eta zure eguneko egoera edo sentimenduekin bat egiten duen abesti bat entzuteko aukera izango duzu, nahi duzunean entzuteko eta emozioak intentsitate handiagoz sentitzeko.



Nor ez da egon bere egoerarekin bat egiten duen abesti baten bila noizbait? App-honek zure egoerara moldatzen den abestiaren bilaketa segundu gutxitan egingo dizu, eta ez duzu artista baten abesti guztiak entzuten egon beharko abesti egokia topatu arte.

Zergatik aukeratu gure aplikazioa? Zertan desberdintzen gara beste aplikazioengandik? Gure aplikazioa bezalakorik ez dago; ez dago aplikaziorik musika eta osasun mentala gure moduan lotzen dituenik, ezta inteligentzia artifiziala erabiltzen duenik sentimenduak musikarekin lotzeko. Beste app-engandik desberdintzen gaituena da, alde batetik, aplikazio originala dela, eta bestetik, osasun mentala hobetzea helburu gisa duen sare sozial bat dela.